

Noaqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1999ko apirilaren 23a IV.urtea

Usurbil, 65. Zenbakia



**Usurbilen antzerkia
berpizteko asmotan**



Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Zalao**. Berandu xamar bada ere ez pentsa ahaztuta gaudenik. Egun on bat pasa zenuelakoan, zorionak! Kuadrilatarrak.



Irati **Larrañaga**, zorionak eta urteaskoan. Apirilaren 12an 6 urte egin zenituen eta berriz ere muxu haundi bat Kalezarko lagunengatik partez. Olaia eta Borja.



Jon **Arriaga**, zorionak! Badakizu, kuadrilako bakoitzak zorionak emango dizkizula pofe baten truke, baina jakin, etxekoek ere beste hainbeste opa dizugula. Jarri ordua apirilaren 24an zerbait hartzea gonbida gaitzazun. Muxu haundi bat kuadrila eta etxekoengatik partez.



Zorionak **Urtzi** Jorralaren 28an 2 urte beteak dituzu eta zure egunean ondo pasa dezazun opa dizugu etxekook.



Zorionak **Ainhoa** eta urteaskoan. Apirilaren 23an 11 urte beteak dituzu, ea ba eguna ondo pasatzen duzun. Muxu haundi bat zure guraso eta anaiengatik partez.



Zorionak **Borja Elizalde** etxeko gizon txikiari, apirilaren 9an 4 urte bete zenituen eta. Berandu bada ere muxu haundi bat berriz ere zure arreba Olaia eta gurasoengatik partez.

Seme-alabak, aiton-amonak, lagunak, lehengusuak... zoriondu nahi badituzu hemen duzu aukera. Lortu argazkiak eta ekarri jarri nahi duzun testuarekin batera.

Hurrengo alea: maiatzaren 7an

Agurrak ekartzeko epea: apirilaren 30ean

Hildakoak

1999-03-31
Francisco Gutierrez Sanchez
69 urte
Atxegalde



1999-04-19
Isabel Lopez Gomez
60 urte
Santuenea

Bai, esan?

- Udala 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Anbulategia 36 20 13
- Udaregi ikastola 36 12 16
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Oiarde kiroldegia 37 24 98
- Zumarte musika eskola 37 15 94
- Etumeta eskalategia 37 20 01
- Taxi geltokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Gurutze Gorria 27 22 22
- Gure Pakea egoitza 37 32 28
- Gure Elkarte egoitza 37 17 51
- Arrate egoitza 36 63 40
- Eusko Tren informazioa 47 09 76
- **Noaua!** aldizkaria 36 03 21

Jaiotzak

Jose-Carlos
Caceres Povedano
(1999-03-31)
Muna Lurra

Unai Lejardi
Araolaza
(1999-04-07)
Bizkarra

Ane Arriola
Lertxundi
(1999-04-12)
Santuenea

EUSKO TRENBIDEAKEN NEGUKO AUTOBUS ORDUTEGIA

ASTEGUNETAN						ASTEBURUTAN		
Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Zarautz
07.40	08.05	08.25	06.45	07.05	07.30	07.30	07.55	08.15
08.00	08.25	08.35**	07.15	07.35	08.00	08.30	08.55	09.15
08.40	09.05	09.25	07.45	08.05	08.30	09.30	09.55	10.15
09.00	09.30	09.40 *	08.15	08.35	09.00	10.30	10.55	11.15
09.40	10.05	10.25	08.45	09.05	09.30	11.30	11.55	12.15
10.40	11.05	11.25	09.20**	09.30	10.00	12.30	12.55	13.15
11.40	12.05	12.25	09.45	10.05	10.30	13.30	13.55	14.15
12.00	12.25	12.35**	10.20*	10.30	11.00	14.30	14.55	15.15
12.40	13.05	13.25	10.45	11.05	11.30	15.30	15.55	16.15
13.00	13.30	13.40 *	11.45	12.05	12.30	16.30	16.55	17.15
13.40	14.05	14.25	12.45	13.05	13.30	17.30	17.55	18.15
14.00	14.30	14.40**	13.20**	13.30	13.55	18.30	18.55	19.15
14.40	15.05	15.25	13.45	14.05	14.30	19.30	19.55	20.15
15.00	15.25	15.40*	14.20*	14.30	15.00	20.30	20.55	21.15
15.40	16.05	16.25	14.45	15.05	15.30	21.30	21.55	22.15
16.40	17.05	17.25	15.20**	15.30	15.55	22.30	22.55	23.15
17.40	18.05	18.25	15.45	16.05	16.30			
18.00	18.30	18.40*	16.20**	16.30	17.00	Zarautz	Usurbil	Donostia
18.40	19.05	19.25	16.45	17.05	17.30	06.45	07.05	07.30
19.00	19.25	19.35**	17.45	18.05	18.30	07.45	08.05	08.30
19.40	20.05	20.25	18.45	19.05	19.30	08.45	09.05	09.30
20.00	20.30	20.40*	19.20*	19.30	20.00	09.45	10.05	10.30
21.00	21.25	21.45	19.45	20.05	20.30	10.45	11.05	11.30
22.00	22.30	22.50	21.15	21.35	22.00	11.45	12.05	12.30
						12.45	13.05	13.30
						13.45	14.05	14.30
						14.45	15.05	15.30
						15.45	16.05	16.30
						16.45	17.05	17.30
						17.45	18.05	18.30
						18.45	19.05	19.30
						19.45	20.05	20.30
						20.45	21.05	21.30
						21.45	22.05	22.30

* Orioraino bakarrik

* Oriotik iritetzen da

** Aiarraino joaten da

** Aiatik iritetzen da

Zer irizten?



Argitaratzailea

Noaia! Kultur Elkarte
Bordaberrri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaia@topagunea.jalgi.com
Web orria:
<http://www.jalgi.com/topagunea/noaia/>

Zuzendaria

Olatz Altuna

Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika eta
Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Saioa Erro eta Idoia Torregarai

Kolaboratzaileak

Pedro Mari Matxain, Ines Kamino, Leire
Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain,
Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako
Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begirista-
in, Zalao Arnaiz, Maribi Arrospide, Agur-
tzane Solaberrieta, Joseba Pellejero,
Ainara Uribe, Eider Jauregi, Olatz Leoz,
Mikel Bengoetxea, Agustín Esnaola,
Izakun Zubiria, Olatz Goenaga, Izaro
Aizpurua, Joxe Loidi, Begoña Arriaga,
Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karme-
le Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol
Goenaga, Joxe Torregaray, Manuel
Begiristain, Jone Aliri, Eukene Kamino,
Olatz De Miguel eta Arantxa
Irazustabarrena.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea eta
Nerea Kamino.

Erredakzio Kontseilua:

Olatz Altuna, Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Ainhoa Azpiroz, Amagoia
Mujika, Agurtzane Solaberrieta eta
Inaxio Usarralde.

Maketazioa eta diseinua

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz
Goenaga eta Mertxe Gonzalez.

Dokumentazioa

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua eta
Nagore Gonzalez

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo
Vidal eta Iker Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Legre-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaia! hamabostekariak ez du bere
gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik.

Noaia! Kultur Elkarteke jendaurreko
ordutegia: 16.30-18.30 astegunetan

**Azala: Guraso eskolako
antzerki tailerrekoak
antzerkia lantzen**



Antzerkia Udarregi ikastolan

Mendigaña Gorostiaga

Udarregiko antzerkigintzako irakaslea

Gaur egun D.B.H.ko lehenen-
go mailan lantzen da antzer-
kigintza. Kurtsoa bitan zatitzen da:
lehenengo talde batek egiten du
ikasturte erdian eta besteak beste
ikasturte erdian. Izan ere, errefor-
marekin hautazko ikasgaia bihurtu
da. Erreforma sartu aurretik ere lan-
tzen zen Udarregi antzerkigintza,
baina orduan OHOk 5.mailakoek,
11 urtekoek. Lehen ere tailer gisan
egiten zen, ikasturte erdian antzer-
kia eta bestean prentsa.

Guk gaur egun egiten ditugun
saioetan antzerki obra bat presta-
tzen dugu. Hau da antzerkigintza-
ren zati bat, baina horren aurretik
gorputz espresioarekin lotuta dau-
den ariketak lantzen ditugu, erlaja-
zio ariketak, gorputz adierazpe-
nak... Garrantzi handia ematen
diogu taldeari, taldean nola senti-
tu, nola sentiarazi eta horren ingur-
uan dioazten autoestima, talde
dinamikak... Guzti hau antzerkian
txertatua gelditzen da. Gorputz
espresioarekin batera dijoa hau
guztia. Nik adieraziko dut gorputza-
rekin baldin eta besteak uzten
badit, baldin eta gustora nagoen
baldin eta mila gauza.

Antzerkia kanpora begira egiten
den zerbaite da. Hala ere, antzerki
obra horren azpian askoz garrantzi-
tsua den norberaren izaera sortze
hori dago. Nik uste dut antzerkigint-
za garrantzitsu dela beraiek zer
punturaino aberastuak ateratzen
diren hortik. Antzerkiak ematen
dituen milaka aukerak oso garran-
tziatsua dira adin honetan eta piska
bat beranduago ere bai.

Hezkuntza sailetik zirkuito bat
badago ikastetxez-ikastetxe antzer-

kia egiten ibiltzeko. Gu hor sartuta
gandenez behartuta gaude
gutxienez obra bat prestatzera. Zer
nolako garrantzia eman behar zaio
obrari? Garrantzi handia ematen
badiozu sekulako obra montatzen
duzu, baina beste arlo batzuk
landu gabe gelditzen dira. Guk,
aurten, Yolanda Arrietaren obra
antzeztu nahi genuen, baina ez
genituen beste arlo horiek jorratu
gabe utzi nahi. Horregatik dena
lortu nahi horrekin lau hilabetea
asko luzatu zaigu. Antzerkiak ema-
ten dituen aukerak gehiegi dira de-
nak lantzeko. Badakizu helburu
asko dituzula, baina oso mugatua
zaude, konturatzen zara gehiegi
direla arlo batean denak lantzeko.
Antzeztan batekin lotu nahi izatea
gehiegi lizateke.

Ikasleentzat hasieran mundu berri
bat izaten da. Normalean elkarre-
kin urte pila bat pasatzen dituzte,
baina futbolekin, klasean ariketak
egiten eta muturrjoka, baina elkarri
eskua hartu, itxututa jarri eta bat
bestea gidatzen jartzea... honelako
ariketak egitea oso berezia da, eta
beraiek ere berezi sentitzen dira.
Inoiz lantzen ez dituzten gauzak
lantzen dituzte eta desiratzen ego-
ten dira.

Hala ere, beraientzat antzerki
lana da muga. Antzerkia antzerki
lana egitea balitz bezala hartzen
dute. Zuk sartu behar diozu hori
dela alderdi bat, eta erlajazio ari-
ketak hori bezain garrantziatsua
direla. Ariketa horiekin beraiek on-
do pasa arren, lantzen ari direna ez
dute ikusten, jolasa da beraientzat.
Gustora daude, baina gauza serio
hori egin nahi dute, antzerkia.



Usurbilgo Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz lagundutako
aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Auto ilarak Orion

Orioko zubiarena lotsagarria da. Zubia konpondu behar dela ulertzen dut eta horrek, zubi hau erabiltzen dugunon kaltean auto ilarengatik 10-20 minutuko atzerapena dakarkigula ere bai. Baina tira, konponketa lanak ahal den azkarren egiten ari badira ez legoke arazorik.

Hala ere, azken asteetan gertatu dena jasanezina izan da. Kotxe ilaretan 60 minutu egon behar izan dugu. Nik derrigorrez egunean lau aldiz pasa behar izaten dut zubia, atera kontuak zenbat denbora behar izaten dudan lanera joateko. Eta ni bezala daude beste asko noski. Hau konponzeko ezin al da ezer egin?

Beste aldetik, behin behinoko zubi hori fidatzekoa ote da?

Guzti hau duela gutxi zubi horretan egon izan diren auto ilaraka ahaztu gabe ditugunengan noski.

I. Iribar(Aginaga)

Sarrera hori debekatu beharko lukete

Aste Santuko opor txiki horiek pasa dira eta Euskal Herriko errepideetan hainbat eta hainbat kotxe istripu izan dira. Aurrerapenaren garaian gauden honetan, ibilgailuen segurtasuna gero eta haundiagoa dela saltzen digute, baina errepideetan nonnahi ikusten dira istripuak.

Hala ere askotan, istripu hauek gerta ez daitezen, begibistakoa dena ikusi nahi ez izatea baino itsutasun haundiagorik ez dago. Usurbilen bertan dugu adibidea. Donostia aldetik gatzela, Troia pasa

eta Igarabide industrialdeko sarrera dago. Savasa, Plasticos Larrañaga eta beste lantegietara Donostia aldetik lanera doazenak, askotan bidean gelditu behar izaten dute beste karriletik datozen kotxeak pasa zain egoteko. Atzetik, berriz, kotxeak abiada bizian etortzen dira eta, batez ere euria egiten duenean horko egoera ez da onena izaten.

Ez al litzateke hobea Donostia aldetik datozenentzat horko sarrera debekatzeko? Segurtasuna garantizatu nahi bada ez da ezer kostatzen Usurbila sartu, buelta eman, Donostia alderako bidea hartu eta industrialde horretara sartzea. Badakit askotan metro batzuk gehiago egitea, horretan denbora galtzea asko kostatzen zaigula, baina beno.

J.A.

xirikitutik



Nori tokatu zaizkio Primitibako 91 milioiak? Pasa den apirilaren 15etik Usurbilen gehien entzun den galdera izango da hauxe. Izan ere, apirilaren 15eko primitiban zenbaki guztiak asmatu eta 91 milioi tokatu zaizkion norbait bada herrian. Herriko edo kanpokoren bat izan daiteke, baina dakiguna zera da, Gaztanazpiko loteria dendan seilatu dagoela zorioneko primitiba hori.

N • U
Ileapaindegia
MISTOA
Solarium, depilazioa,
makilajea eta manikura

Aritzeta 2-2 1.A
Tél.: 943 36 19 51

MAHUKA
Gizon eta emakumezkoen
modako arropa guztia hemen aurkituko duzu

Etxebeste kalea.3 - Tlf. 943 36 11 06

**SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA**
JOSU
Ugaldea poligonoa 36 - 2ª Esk
Usurbil - Gipuzkoa
943 37 19 54
**INDYTRI ETA
IRAGARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA**

Berriketan



Josefa Iceta Iñarra

Orion jaio zen, frontoiko etxe zaharrea, baina hiru urterekin Aiako Beldarrain baserri-
ra joan ziren bizitzera. 28 urte zituenetik,
berriz, Usurbilen bizi da, Villa Maria Josefan
hain zuzen ere.



Nola gogoratzen dituzu txikitako garai haiek?

Baserriarekin erabat lotutakoak izan ziren. Pentsa ezazu, eskolara ere ez nintzen joan. Zazpi urterekin komunioa egiteko "katona" ikasten ibili nintzen, nahiz eta gehiena etxean ikasten nuen. Ni gazte-ena nintzen eta, zaharrenak eskolara joaten ziren bitartean, ni goldean behiak gidatzen ibiltzen nintzen.

Komunioa ere zu baino zaharragoekin egin zenuen ezta?

Bederatzi urterekin egin nuen bai komunioa. Aia urruti zegoen, ordu eta erdiko bidea zegoen eta bakar samar gelditzen nintzen auzoan, besteak 11-12 urtekoak baitziren. Bakarrik gelditzen nintze-
la eta, komunioa egin nuen besteekin batera. Garai hartan erretorearentzat erregaloak izaten ziren, baina nik esaten nuen erregalorik ez nuela eramango.

Eskolan ibili gabea zara beraz.

Dotrina ikasi nuen baina beste ezer ez. Hala ere, 13 urterekin auzoan maixu erdaldun txiki bat jarri zen, baina nik erderaz jakin ez. Hala ere, harekin hiru hilabete pasa nituen, "sumar" eta "multiplicar" ikasteko adina.

Baserri lanak egiten ikasiko zenuen ba?

Horixe baietz. Bederatzi urterekin behiak biltzen ikasi nuen eta hamar urterekin sega eta eskobare-
a bizkarrean nituela behientzat jatena ekartzera joaten nintzen asto txiki batekin. Atxurrean ere asko ibilia naiz.

Astoarekin hara eta hona ibilia al zara?

Goizeko seietarako Orioko geltokira joaten nintzen hamar urterekin esnea eramatera. Ordubeteko bidea zegoenez goizeko lauretan jeikitzen nintzen

astoa prestatzera. Kazkabarra, tximista, euria egi-
ten bazuen ere han joaten nintzen eta ze bidetan gainera!

Orain berriz kalean bizi zara. Baserrian bizitzeak ez al dizu inbidiarik ematen?

Kale ondoan dauden baserriek ematen didate inbidia. Kalean ondo bizi gara, baina baserriak inbidia ematen dit. Alperrik da, baserrian beste askatasun bat dago.

Noiz etorri zineten Usurbila bizitzera?

1956 inguruan. Lau seme-alaba zaharrenak Aian jaiok dira eta Toribio berri, hemen jaiotakoa da. Garai hartan, pobrezia zer zen probatu nuen hona etortzean. Hil bat etorri ogia ordaintzeko dirurik ez, hurrengoan esnea ordaintzeko ere ez. Hala ere, pixkanaka-pixkanaka atera ginen hartatik.

Zer lan egin zenituen garai haietan?

Aurrena Hortelanuanean landareari belarra ateratzen hasi nintzen, orduko hiru pezeta irabazten nituen. Urtebetera beste baserri batzuetara arto jorraztera joaten ginen. Arto hazia egitera Ugartera joan nintzen eta hango nagusiak esan zidan: "etorriko al zinateke botilak garbitzera?" Nik baietz esan nion 1958an hasi zen hura negozioarekin eta ni ekainaren 10ean hasi nintzen lanean, orduko zazpi pezeta irabaziaz. Gero hogeitasei urtean Ugarten egin nuen lana.

Bizitza guztian euskaraz, baina erdaraz jakin ez.

Nere denboran Donostiara joateko kapaz ez nintzen izan, erdaraz ez nekien eta. Nire ustez pertsonak erdera piska bat behar du euskararekin batera, eta lehen gehiago. Euskara behar dugu, baina euskararekin bakarrik nora joan behar duzu?

Josu Aranberri

ZENDOIA-ENE

TABERNA

Goizeko 7tatik irekia

Gosariak, hamaiketakoak,
eguneroko menuak eta
bokatak

Kale Nagusia, 25 Tlf. 943 36 25 60

TXURRUT
edaritegia



Giro eta musika atsegina!

San Esteban kalea, 1
Tel.: 943 36 00 80

PATRI

JATETXEA

Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)

TXOKOALDE

Bazen garaia

Imanol Goenaga



Bazen garaia! Frontoi bideko bazken bi farolak ipini dituzte azkenean. Hala eta guztiz ere, oraindik ez dituzte San Esteban bideko farola guztiak jarri. Auzotarrok eskertuko genuke hauek ere lehenbailehen jarzea.


Argi eta farolei buruz hitz egiten ari garenez, aipatu beharra daukagu frontoian antzematen genuen gabezia larri bat: argi falta. Hau dela eta, ezinezkoa zitzaigun gauzez edo neguko arratsalde ilunetan frontoian aritzea. Laister aukera hau izango dugu behintzat. Izan ere, hiru argi foko jarri dituzte ja.

Aldamioak jarrita daude eta iluntzean pelota saioa egiteko aukera emango digun argia ere laister jarriko dute.

Bestalde, Irabiko errepidea konpondu izanak, hobekuntzez gain arazoak ere ekarri ditu. Bidearen egoera onak bertan dabilzan ibilgailuen abiadura handitzea ekarri du. Batez ere beren gurasoek oparitutako moto berriekin dabilzan ume mokoan ugaritze izugarria.

Izan ere, azkenaldian moto soinua nagusitu zaigu herrian, eta baita gure auzoan ere. Badirudi "modan" jarri dela motoa izatearen kontua; 14 eta

17 urte bitarteko gazte mordo batek motoa baitauka.



KALEBERRI

Berriz betiko martxara

Itziar Aizpurua



Dagoeneko bukatu da opor garaia eta herria bueltatu da betiko martxara. Izan ere, Aste Santuan lasai lasai egon da herria, gutxi batzuk bakarrik geratu gara Usurbil zaintzen.

Zenbait urtetan ni ere kanpora irten naizen arren, aurten derrigorluta etxean gelditzea tokatu zait eta esango nuke inoiz baino jende gutxiago gelditu dela herrian.

Eskerrak eguraldia lagun izan dugun eta hortxe pasa ditugu orduak kanpoko bankuan eserita, tertulia gozoan.

Jenderik ez da ibili, baina kotxea ugari, batez ere kanpotarrak. Eta kanpotarren artean

asko kataluniarrak izan dira.

Asko gelditzen ziren sagardotegiez galdezka eta beste asko hotelen bat non aurki zezaketen galdetuz ere bai. Batzuk Aginagara edo Saizarra bidaltzen genituen eta, hotel bila zebiltzanak, Zarautz edo Lasarte aldera. Donostiako hotelak bete beteak omen zeuden.

Usurbildarrak ere kanpoan izan dira eta, jakin dudanez, Port Aventura aldean topatu ziren zenbait herritar. Beraz, kataluniarrak Usurbila eta usurbildarrak Kataluniara.



Aste Santuko igandean, berriz, Aberri Eguna ospatu genuen Usurbilen. Opor garaia zela kontutan izanik, jende dexente bildu ginen udaletxeko plazan, 200 bat lagun edo. Beraz, ez naiz ni bakarria izan herria zaintzen gelditu naizena!

iran

ATXEGALDE

Bitxia eta ikusgarria

Zaloa Arnaiz



Hamaika gauza ikusteko jaiak omen gara, nik hamaika gehiago esango nuke. Beti dago harritzen edo liluritzen gaituen zerbait, munduko gauzarik arruntena bada ere. Oraingoan zer bitxikeriak animatu ote nau lerro hauek idaztera?

Auzoan zehar ez daude zuhaitz asko eta geratzen direnak haundiegiak egiten dira lur esparru txikietan bizirik irauteko. Baina badago kemen haundia erakusten ari den bat, auzoko txoko ezkutuenen badago ere. Bitxia, horrelako hormaren zulo batetik zuhaitz bat atera

daitekeela pentsatzea ere? Baina horretarako astirik hartzen ote dugu? Zuhaixa zulo batetik ageri da eta bertan jarraitzeko adorea erakusten du. Beharbada ez da toki egokia izango edo agian bai, baina gauza asko ikustekoak garenez...

Zuhaitzei buruz ez dakit gehiegi, baina baten batek

zuhaixa honetaz jakinmina badu, auzotik bueltaxka bat ematera gonbidatzen dut.



KALEZAR

Kalezarko lur emankorrak

Joseba Pellejero




Lehendabizi, zera esan nahi nuke: tarteka-tarteka txakurrarekin paseatzera Anaerrekara joaten naizenean, noizean behin topatu izan dut jendea, errekatik ura hartu eta beraien kotxea garbitzen.

Ulertzen dut, aste bukaeran eguraldi onarekin, lasai lasai ederki egoten dela erreka bazterrean. Baina hori ez da itxura. Kotxea garbitzeko leku hobeak badaude eta horrela Anaerreka garbiago edukiko dugu.

Bestalde "kalejiran" tarte honetan jiratxo bat egitera gonbidatzen zaituztet. Hain luze, zabal eta emankor diren

Erriberako lurak bisitatzera hain zuzen ere. Hasi "May-Kar" ondolik eta tren geltokiraino, tartean, Orbeldiko presara joan eta zorte pixkatekin izokin, amuarrain edo angula beltz belarri haundi batzuk ikusteko parada izan dezakegu.

Aurten ez du asko lagundu eguraldiak, baina, jendea ez da atzera begira geratzen eta dagoeneko patata landare sail ugari ikusteko aukera daukagu. Laister, gainera, hain gustora ahoratzen ditugun Usurbilgo



piperez beteko zaizkigu lur emankor huek, beste lekadun eta barazkien artean.

Beno ba, hortxe duzue proposamen eder hau, hurrengo-rarte.

SANTUENEA

Santuenearen sorrera

Isaak Muñoz



Jende ugari dago Santuenea auzoan bizi eta izen hau zergatik jarri zioten ez dakiena. Nik Santuenearen historiari buruz azalpen txiki bat egingo dut.

Gaur egun dauden etxebizitzak egin baino lehen, ibaiatz bestalde baziren baserri batzuk. Baserri horien artean Santu-enea baserria zegoen. Gaur egun San Estebanera doan bidea, Santuenea zeharkatuz, eskubitara, Santu-enea baserriak bere lur zatia zuen. Ezkerretara, berriz, Ermotei baserriko lurrak zeuden. Santu-eneako jabea zen **Don Manuel Etxabeguren** zenak, Ermotei

baserriari, lur zat bat erosi zion, eta lur zati horretan etxebizitzak egitea erabaki zuen.

Lehenengo lau etxebizitza egin zituen. Gaur egun, batetik laura zenbaita daudenak dira. Geroago, segidan beste hiru egin zituen, hogeita hiru, hogeita lau eta hogeita zazpi zenbakiz ezagutzen direnak. Hurrena, bidetik eskubitara zituen lurrak saldu zizkion kontratistari eta hauek etxebizitza gehiago egin zituzten. Horrela, poliki-poliki etxebizitez bete-



tzen hasi zen eta gaur egun ezagutzen dugun auzo handia izatera iritsi da gure Santuenea.

Beraz, kontatu dizudan istorio honekin, Santuenea auzoaren sorrerari buruz zerbait gehiago badakizula uste dut.

URDAIAGA

Urdaiaga bideko kurba

Joseba Zubeldia



Azkenik, nola halako udaberria iritsi zaigu. Zelaiak loretu dira, zuhaitzak berdetu eta txori kantuek entzuteko aukera ere badugu. Giro honi udaberri kutsu gehiago eman-go lioke eguzkiak gehiago iraungo balu. Kukua entzuteko aukera izan dutenak ere badaude, beraz, badakizue, badaezpada ere beti ibili txanponen bat poltsikoan, kukuaren kukua suertatzen bada ere.

Gaurko honetan, Urdaiagako kurbaren berri eman nahi nuke, eskonbrera pareko kurbaren berri. Ez dakit fijatuko zineten baina kurba parean, ubidean beti egoten dira harri txikiak.

Euria egiten duenean egoera txarragoa izaten da. Harriak handiagoak izaten dira, lokatza,...kurba berritzeko mendixkari zatia kendu zioten eta orain materiala erori egiten da. Ubideak ataskatzeko arriskua egoteaz gain, hauetako harriren batekin susto txikiren bat har liteke egunen batean. Agian ez da honelakorik gertatuko, baina kurbaren egoera hobetzea ona litzateke.



Azkenik, esan nahi nuke, Andatza eguna ere badatorkigula konturatu baino lehen gainera, beraz, entrenatzen hasi beharko dugu, egunean bertan lotsagarri ez gelditzeko.

AGINAGA

Gure mendiak

Gure mendiak gero eta soilagoak ikusten dira; gure inguruan erreparatu ezke-ro Andatzako pinudia daukagu, gainontzeko lurrak orain dela urte gutxi arte bete bete-



ak egon badira, egun larrak hartuta daude; oso jende gutxi animatzen baita berriak landatzera.

Azken urteotan pixkanaka pixkanaka baserritarrak esnetako behiak kentzen hasi dira, honen ondorio garbia bistan dugu, belardi asko, batez ere neurri txikikoak edo mal-karrak direnak, eta

Manuel Begiristain



makinaria sartzeko modukoak ez direnak, hor geldituko dira ezertarako balio gabe.

Mendira joaten garenean eta ikusten ditugunean hain belaze berde eta hain ondo zaindutako ingurua, ez gara pentsatzen jartzen zenbat lan kostatzen den horrela mantentzea.

Esne behiak dituzten hainbeste baserri txiki desagertzeak inguruarentzat dakarren kaltea imajina ezina da.

Ez al da garaia lurjabeak, udala eta Aldundia elkarlanean hasteko gure mendiei etorkizun oparo bat segurtatzeko?


ZUBIETA

Zubieta berritzen ari da

Neguko loaldiaren ondoren, Udaberriaren etorrerarekin batera, nabaria da Zubietan azkenaldi honetan dagoen mugimendua, txorien kantuez

gain, makina hotsak ere izan baititugu bizilagun herrian.

Alde batetik, duela aste batzuk zabaltzen hasi ziren Artzabaletako bihurtua dago jadanik, galipota botata eta guzti. Orain, kotxe naiz oinezkoek ez dute arazorik izango betidanik hainbeste buruhauste eman dituen errebueltan honetan. Horrez gain,



Olatz De Miguel



Txakurtzuloko bidea itxirik dago bertan sartzan ari diren estolderia berria dela eta. Modu honetan, inguru horretako saneamendu sistema hobetu nahi da.

Amaitzeko, zubietarrok kontuz ibili beharko dugu gure herrian burutu nahi diren (eta jada egiten ari diren) proiektuekin. Hasiera batean antolamendu turistikoaren ideia saldu nahi baziguten ere, orain erabateko aldaketa eman eta inon nahi ez dituzten interesik gabeko proiektuak ezarri nahi baitizkigute, adibidetzat garraio zentrua eta fruta merkatua ditugularik. Erne ibili beharko gara zubieta ez dadin Donostialdeko zabortegei bihurtu.

Harmarri eta bandera berria?

Ba al dakizu gaur egun udalak ofizialki erabiltzen duen harmarria jatorriz Usurbilgo herriari dagokionaren desberdina izan daitekeela? Azken urte hauetan egindako artxibo lanek hori erakutsi dute eta horregatik herriko harmarria eta bandera aldatzeko prozedura martxan jarri du udalak.

Armarriaren benetako jatorria ikertzeko asmoa du udalak. Izan ere, azken urte hauetan erabili izan den harmarria benetan Usurbili dagokiona ez izateak kezka sortu du. Horren aurrean, armarriaren jatorria aztertu eta aldatzeko pausoak ematen hasi dira.

Oraingoz harmarria eta bandera aldatzeko proiektua bideratuko duen batzordea osatu da: **Joxe Antonio Altuna** alkatea, **Kerman Rekondo** kultura batzordeburua eta heraldikan aditua den **Antxon Agirre** dira batzordeko kideak.

Historian oinarrituta harmarri



Proposatzen den harmarri berria

berriaren proiektua egitea izango da hauen lana. Dirudienez **Antxon Agirrek** egin du guzti honen azterketa eta hiruren artean erabaki beharko dute plenora bideratu behar duten hasierako erabakia zein izan behar duen.

Plenoak onartzen badu, aurrerabakia jendeaurrean jarriko da hilabetez Gizpuzkoako buletinean argitaratuz. Bien bitartean Eusko



Orain arte Usurbilgo harmarria dena

Ikaskuntzari proiektuari buruzko informea eskatu beharko zaio.

Plenoak onartutako harmarri berriaren proposamenak alegaziorik jasoko ez balu plenoak behin betiko erabakia hartuko du eta Foru Aldundiari jakinarazi. Honek besterik esaten ez badu, Usurbilek harmarri berria izan dezake hiru hilabeteren buruan. Hala ere, proposatzen den harmarri berria erabili izan du udalak

Todoterreno berria erosi du udalak

Mitsubishi Pick Up Club Cab 4x4 modelo hau udal brigadaren eskuetan egongo da laster batean, izan ere apirilaren 13an egin zen Gobernu Batzordeak Mitsubishi enpresari "todoterreno" bat erosteko erabakia hartu zuen. Lehengoaren egoera txa-

raz jabetuta udal brigadan "todoterreno" bat erosteko beharra ikusi zen, eta horregatik berria erostea erabaki zuen Zerbitzu, ingurugiroa eta nekazaritza sailak. Eskaintzak aurkezterakoan bi enpresa eta hiru proposamen aurkeztu ondoren, Mitsubishi enpresak propo-

satutako eskaintza merkeena onartzea erabaki da. 2.750.000 pezeta ordainduko ditu udalak ibilgailu berri honen truke. Ibilgailu berri hau udaltzainek dutenaren antzekoa da, izan ere atze aldean eserlekuak izatea baita deesberdintasun bakarra.

**BORDATXO
EDARITEGIA**

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 943 37 10 42

JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea



Fatxadaren konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B
USURBIL
Tel.: 943 36 37 67

ALBORTA

HARATEGIA

Beheko kalea, 4
Atxegalde

☎ 943 36 57 42

Teknologi Integrazioen Zelula Didaktiko berria

Usurbilgo Lanbide Heziketa Eskolak, Teknologia Integrazioen Zelula Didaktiko berria inauguratu zuen pasa den apirilaren 15ean. Horrez gain, egun berean, eskolak kalitate aldetik egin duen lanaren adierazgarri ISO 9002 egiaztatzea jaso zuen AENOR-en eskutik. Aurkezpen ekitaldian izan ziren Inaxio Oliveri hezkuntza sailburua, Roman Sodupe diputatu nagusia, Luz Enparanza Aenor-en ordezkaria, Iñaki Mujika zuzendaria eta Jesus Irigoien.

Usurbilgo Lanbide Eskolak aurkeztu zuen formakuntza hau Europako hegoaldean aintzindaria da. Zelula hau martxan jartzeko 60 milioi pezeta inguru behar izn dira. Bertan, ikasleek, aldagai ugariaren inguruan simulazioak eginaz lan egin dezakete, baina benetako makinekin. Horrela, etorkizunean lan bizitzan izango

dituzten lan baldintza berberak aurkituko dituzte.

Lanbide Heziketa Eskola zuzendaritza eta teknikariek batera, 15 enpresek, Eusko Jaur-laritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak eta Lan, Justizia eta Gizarte Segurantzza sailak, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia eta Turismo departamenduak zuzenean parte hartu dute.

**Lanbide Eskolak
martxan jarri duen
formakuntza hau
Europako hegoalde-
an aintzindaria da**

Iñaki Mujika eskolako zuzendaria esanetan inguruko enprekin lantzen ari diren hurbilketa garrantzitsua da.

"Lanbide Heziketatik pasatzen den ikaslea oso ongi txertatzen da lan munduan. Enpresetara hurbiltze bide handia ematen ari dda orain, eta hau ez da kasualitatea".

Orain, formakuntza proiektu berri honek Usurbilgo Lanbide Eskola hainbat urtez inguruko enprekin lantzen ari den hurbiltze hori finkatzea ahalbideratuko du. Epealdi honetan enpresa ugarietako teknikariak aritu dira eskolarekin elkarlanean: Ingemar S.A., Mondragón Corporación Corporativa, Fagor-Luzuriaga, Berriola, Mondragón Sistemas de Información, Gagor-Gisat, Orona, Alecop S.M.C., Diplosistemas S.L., Omron, Siemens, Schneider, Kutxa eta Maser S.A.

Enprekin lankidetzeta hau izatearen helburua, Teknologia Integrazioen Zelula Didaktiko berri honen bitartez, produktioa hobetzeko beren enpresatan jarri diren edo etorkizunean jarri ahal izango diren automatizazio kontzeptu berriak probatzea da. Programa hau teknikari eta goi-teknikarien prestakuntzarako da.

Zelula Didaktiko berri honek hiru dimentsioko simulatzaileekin, estalki eta kutxatilik muntatuz, kobrezko, latoizko edo plastikozko dominak estantatuz, plastikozko dominen termoprentsaketaekin eta beste zenbait simulaziorekin lan egiten du. Azkenean, kalitatezko kontrola egin eta benetazko makinekin proba egiten da.



TXIMINIA ALTZARIAK

Osinalde industrialdea

(Aizpurua autobusen aldamenean)

BISITA EZAZU

**ALTZARI-ERAKUSKETA HANDI BAT
USURBILEN BERTAN.**

**PREZIO HARRIGARRIAK! AUKERA
HANDIA ALTZARI TRINKOETAN.
ESKAINZA BEREZIAK BETI!!**

Urte askoan itzalpean egon den antzerkigintza berreskuratu nahian

Bi urte igaro dira Guraso Eskolak antzerki tailerrak martxan jarri zituztenetik. Guk tailer hauen nondik norakoak jakin nahian, oraintxu bertan lanean dabiltzan Joseba Aierbe eta Milagros Pagolarengana jo dugu. Urtetan zehar antzerkigintzak herrian presentzia izan duen arren, azken hamarkada hauetan nahiko isilean egon den alorra izan da. Garai bateko ilusio eta gogoei eutsi nahian, lanari gogotsu ekin diote hainbat herritarrek.

Mota honetako proiektu batek eskatzen duen legez, laguntza ekonomikoa ezinbestekoa suertatzen da sarri. Horregaitik, udaletxera jo zuten elkarteak aurreikusitako proiektua aurkeztera. Udaletxearen babes ekonomikoa hasieratik izan dutela azpimarratu nahi izan dute finantziaketan sor zitezkeen oztopoei aurre egin ahal izateko. Horrela, bada, berehala ekin zioten lanari.

Antzerkigintzaz gain beste hainbat tailer ere lantzen dituzte ikasturtean zehar. Guraso Eskolako kide den **Milagros Pagolak** zera dio; "Antzerkigintza zergatik? Usurbil urte batzuetan oso hila egon da. Gu txikiak ginela antzerkia pila bat egiten zen. Ikastoletan asko lantzen zen antzerkigintza, herrian bertan ere urtero-urtero antzerkia egiten zutenak ere egoten ziren. Baina, hau dena galdu egin da tamalez." Ekimen horiek berreskuratzea izan da hain zuzen ere helburu funtsezkoena. Herri mailan antzerkigintza suspertu eta jendeari gogo



Ostiraletan biltzen dira Udarregei zaharrear eta bi ordu inguruko saioa egiten dute

eta ilusioak berpiztu. Oraintxu, umeentzako eta helduentzako tailerrak izan arren, hirugarren adinekoentzat ere zerbait berezia prestatu asmotan dabiltza. Gaztetxoan taldean 12 eta 16 urte bitartekoak daude **Ixabel**

Agirresaroberekin lanean eta helduen taldean, aldiz, 21 eta 50 urte bitartekoak **Joseba Aierberekin**. Josebaren ustez, helduen taldean bereizten den adin ezberdintasun honek taldearen dinamika aberastu du. "Hasiera batean taldea zatikatzea egokiena izango

Antzerkigintzak berriz ere herrian bere lekutxo izan dezala da Guraso Eskolaren tailer hauen helburu nagusia

zela iruditu zitzaidan belaualdi ezberdinetako jendea egotean. Denborarekin, aldiz, metodo honekin konplizitate haundiago bat lortzen dela konturatu naiz. Gai askotan iri-

tzi eta interpretazio ezberdinak kontrastatzeko aukera ematen baitit."

Antzerki teknikak lantzen dituzte tailerretan; batetik, ikasleak beraiek dituzten posibilitateak zeintzuk diren ikustea eta antzerkiak bere osotasunean eskeintzen dituen posibilitate eta aukerak, bestetik. "Adineko jendeak antzerkigintzaz duen irudia nik badakit zein den, garai batean horrelaxe egiten baitzen; testu bat ikasi eta hori bera antzeztu. Hau antzerki klase bat izan daiteke, baina nere uste apaletan antzerkiaren sustraian bapatekotasuna dago. Hau da, bakoitzak barnean duena bota egin behar du, hartara egiazkoagoa bihurtzen baita antzezlan. Horrela, zenbat eta egiazkoagoa izan, sinisgarritasun maila haundiagoa lortzen da, nahiz eta estilo komikoagoa erabili."

Oraindik ez dute ezer publikoki egiteko asmorik. Helburua ez da testu soila ikasi eta berau publikoki antzezte, prozesu oso baten barne erregela batzuk jarraituz sortu nahi den hura egi bilakatzea baizik.

Josebak ez du inolako asmorik inor epe jakin batetarako tes-tua ikasita edukitzera behartu nahi antzerkia antzeztu egin behar delako. Izan ere, aktore-ak beraien baitira euren buruak epaitu behar dutenak eta euren lana herritarrei era-kusteko une egokia zein den erabaki behar dutenak. Azken uneko urduritasunak eta orain-dik publikoki egitekogaitasun eza dugula pentsatzeak ere aurreikusitako epea luzatu dezake. "urte guztian zerbai-tetan lanean ibili ostean, jen-deari erakusteko irrikia ere iza-ten da, eta guk, gure aldetik, Milagrosek gaineratzen zuen bezala, gogo eta ilusio hori ere badaukagu." Hala nola ere, udazkenerako hon-tan lanean hasiko direla uste dute.

Mota askotako ariketak lan-tzen dituzte. Josebak beti pauta batzuk markatzen ditu eta honela planteatzen ditu; "errealitate hurbil batetik hasten naiz, pertsonala, gorputzaren mugimenduen bitartez fikziora eraman behar dena. Askotan burutik inoiz pasa ez zaigun gauzaren bat antzezteko aukera anitzak ematen baitizki-gu gorputzaren mugimenduak; animaliak, basoak,... esatera-ko. Ni batez ere bakoitzak egiazko gauzak ateratzea bila-tzen dut,"

Guraso Eskolaren asmoa Usurbilen antzerki talde iraunkor bat sor- tzea da

Proiektu honen asmoa eta xedea antzerki talde iraunkor eta egonkor bat sortzea da Usurbilen. Bidea ez da motza, azken finean talde itxur-a har dezan lana ez delako erraza eta nolana hikoia. Guraso Eskolaren asmoa tailer




Udarregi ikastolan aspalditik lantzen da antzerkigintza. Nork ez ditu gogoratzen San Juanetan edo Santixabeletan ikasleek antzezten zituzten antzerki lanak.

Orain ere antzerki lanak aurkezten dituzte ikastolako haurrek. D.B.H.ren sorrerarekin hautazko irakasgai bihurtu da antzerkigintza. D.B.H.-ko bigarren mailakoek lan-

tzen dute eta aurten bi antzeztan aurrera ateratzea izan dute helburu.

Pasa den martxoaren 20-an Yolanda Arrietaren "Badago edo ez dago" lana aurkeztu zuen talde batek Udaregiko erdiko aretoan eta Orion ere izan dira antzeztan hau aurkezten.

Orain, "Naporen istorio historikoak" prestatzen ari da beste talde bat.



hauei jarraipen bat ematea da Usurbilen antzerki talde bat sortzeko. Garai batean herriak zuen behar hori, gaur geroz ere sentiarazteko. Herriak asko gozatzen du antzerkiarekin. "Egia da garai hartan ez zego-ela ez telebistarik, ez zinerik... Antzerkia denborapasa atsegi-na zen eta herritarren artean elkar komunikatzeko eta elkar-tzeko gune egokia zen. Honez gain ere, antzerkia barrenak hustutzeko aukera ezin hobea

da. Azken finean, antzerkia talde terapia bat da, ondo pasarazten gaiituen talde tera-pia bat.

Tailer hauen ateak herritar guztioi zabalik daudela gogor-razo nahi izan digute bi kide-ok. Oroimen ona ez izateak ez da oztopo antzerkigintzan ari-tzeko, izan ere, uste duguna baino aktore hobeagoak bai-keralako sarritan.

Agurtzane Solaberrieta

Zumartek eta Arrasatek musika elkartruke

Zumarte Usurbilgo musika Eskolak udaberriari hasiera bikaina emateko aurten ere kontzertu pedagogikoak antolatu ditu.

Dagoeneko badira 6 urte kontzertu hauek antolatzen direla bi helburu nagusirekin: alde batetik Usurbilen herri ezberdinetako musika eskoletako taldeak entzuteko aukera izatea eta bestetik, musika

eskola horiekin elkartrukaketa egitea, era honetara Usurbilgo musika eskolako ikasleak, Donostia, Lezo, Bergara, Errenteria, Lasarte, Orion eta beste hainbat lekutan kontzertuak emateko aukera izan dute eta arrakasta haundiarekin gainera.

Oraingoan, Arrasateko musika eskolarekin egingo da elkartrukaketa, Arrasate

Musikaleko Banda Txikia izango baita gure artean. Talde hau, 1994/95 ikasturtean sortu zen eta gaur egun 11-16 urte bitarteko 25 ikaslek parte hartzen dute bertan. Gero, teknika maila altuago bat lortzen dutenean, Arrasate Musikaleko Bandako partaide izatera pasatzen dira.

Kontzertu hau, apirilaren 24an izango da, arratsaldeko 18.30etan Salbatore Parrokian. Bertan, 1989an sortu eta 10-23 urte bitarteko 30 partaide dituen Zumarteko Orkestrak ere parte hartuko du.

Bi talde hauek ikasturte hasieratik egon dira kontzertu hauek prestatzen eta lantzen, beraz, egin duten lana eskertzeko, kontzertu egunean entzuleak edukitzea merezi dute. Horretarako, eguna, ordua eta lekua gogoan hartu eta aukera aprobetxatu behar denez, bertara hurbiltzea besterik ez da gelditzen.



Ordubeteko lanuztea bakearen alde

Lizarra-Garaziko alderdi eta sindikatuek "Bakea Leraikitzen Euskal Herriak du hitza" lemapean deitutako lanuztearen eragina nabarmena izan zen Usurbilen pasa den apirilaren 12an. Herriko denda, taberna eta komertzioak itxita egon ziren 12.00etatik 13.00era bitartean eta Udarregi ikastolak ere klaseak emateari utzi zion 11.30etatik 12.30etara. Lantegiei dagokionez lanuztea ez zen erabatekoa izan. Lantegi haundienek Ingemar, Ucin... ez zioten lan egiteari utzi. Beste batzuk ordea, udaletxe aurrean bildu ziren bake prozesuari bultzada bat eman nahi ziotela adieraziz.



Artinea Elkarte

*Loreak - Lore landareak
Lore sortak - Koroak*

San Esteban
Tlf.: 36 22 55

**GALARRAGA
GARRAIOAK**

* LUR ONGARRIAK
* ZABOR BILKETA
* ZISTERNA BEREZIAK

Telf.: 943 37 01 46

ZUMAIATIK USURBILA IBILALDIA

Andatza Kultur Kirol Elkarteak antolatuta XVI. ibilaldia izan zen pasa den apirilaren 18an. Zumaiatik Usurbila etorri behar zuten 37 kilometro inguruko ibilbidea eginez. Goizeko 8.00ak inguruan irten ziren Zumaiatik eta eguerdiko ordu-bietarako usurbilen zen bat baino gehiago. Beste batzuk, ordea, lasaigo hartu zuten, eta eguraldia lagun, kostaldeko "bista" ederrak ikusiz lasai-lasai egin zuten ibilbidea. Izan ere, bestelakoa bazirudien ere eguraldia lagun izan zuten.



Jabi Santxo eta **Mikel Ibarretak** jokatuko dute Jau eta erdiaren barnean jokatu den banakako pelota txapelketako finala, izan ere lehenengoak 18-9 irabazi zion **Haritz Urdanpiletari** eta bigarrenak 18-15 **Iñaki Rekondori**. Azken partiduak apirilaren 25ean izango dira 11.30etan. Antolatzaileek beren eskertza eman nahi die Usurbilgo Kirol Patronatua, Savasa, Xabier taberna, Benta taberna, Euskadiko Kutxa, Aginaga sagardotegia, Aialde Berri, Aitzaga elkarte eta Antxeta tabernari.

ANDATZA EGUNA MAIATZAREN 2AN

Maiatza badatorrela! Hilabete honek dantzan jartzen ditu guztiak. Hasteko ohiturari jarraituz lehenengo igandean Andatza eguna izango da. Urtean zehar mendira joaten ez denak ere egun honetan zain izaten du Andatza gainean egoten den hamaiketako goxoa. Badakizue, hasi botak garbitzen. Iazko eguraldia baino hobea egingo al du aurten, bestela traktoreak berriz ere Andatza puntaino igo beharko du. Nor eramango ote du horrela bada?




Aitzaga Kultur Elkarte eta Usurbilgo Pelota Eskolaren artean, herriko pelotari txikientzat txapelketa antzeko bat antolatu dute. Txapelketaren aitzakiarekin, pasa den apirilaren 17an goiz ederra pasa zuten haurrek Txokoaldeko frontoian. Goizeko 10.00etan hasita, adin desberdinetako 16 bikote bildu ziren. Hango zalaparta!, baina bai gustora ibili zirela Txokoaldeko frontoi txikian. Asteburu hauetako batean, berriz, herriko pilotalekuan jokatu dituzte azken partiduak.



Merkantzi tren baten azken bagoia bere bide-tik atera zen Asteasuain parean apirilaren 12ko goizaldean eta Usurbil eta Donostia arteko tren zerbitzua geldirik egon zen apirilaren 13an arratsaldeko 20.00ak bitartean. Dirudienez goizaldeko hirurak aldean gertatu zen ezbeharra. Merkantzia trenea ateratzera zioanean azken bagoia deskarriatu eta trenbidean kalteak eragin zituen. Horrenbestez, Usurbildik Donostiara joateko autobusak jarri zituen Eusko-Trenak.

TABERNA
BAZKARIAK
ETA AFARIA
Santueña
Tlf. 36 27



TXIRIBOGA
TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13


T R U K E
R U K E
JANTZIAK
Udaberriko
moda berria
arropa berriekin
Erdiko kalea, 2
Tel:37 34 81

Haimar Zubeldiak 85. postuan amaitu du Euskal Herriko itzulia

Euskal Herriko itzuliak iraurun duen bitartean behin baino gehiagotan entzun eta ikusi dugu Haimar Zubeldiaren izena. Ez aurreko puntan ibili delako, jarraitu beharreko txirringarritzat hartzen dutelako baizik. Usurbildarrak ere hor egon gara Haimar non azalduko zain, baina bere lehen Euskal Herriko itzulira ez zen bere sasoi punturik onenean iritsi eta 85. postuan amaitu zuen proba. Hala ere, laister aurreko postuetan ibiltzeko moduan egongo dela uste du berak.

Euskal Herriko itzulian parte hartu izana behintzat inork ez dio kenduko. Iaz aukerarik izan ez bazuen ere, profesionalaletako bigarren urtean iritsi zaio, bai, txikitatik errepide bazterretik ikusi izan duen itzulia korritzeko ordua. Ba zuen Haimarrek parte hartzeko gogoia. "Euskal Herriko itzulia ilusioz hartzen da beti, guretzat laisterketarik garrantzitsuenetakoa da. Hemen bezala animatzen den lekuak oso gutxi dira. Itzuliko lehen eguna, adibidez, harrigarria izan zen. Astelehenean jai zen eta Larraitzen eta beste lekuetan jende ugari zegoen".

Guk aurreko postuetan ikusi nahi izan badugu ere aurten ez da posible izan. Itzulira ez da oso indartsu iritsi, izan ere julian Gorospe zuzendariak Euskaltel Euskadi taldea bi zatitan bana-



tuta dauka. "Batzuk orain indartsu dabilta, baina beste batzuk ez gaude formarik onenean". Tourra antolatzen dutenek aurrera eramaten duten Dauphine Libere laisterketan parte hartzeko gonbidapenak zerikusi haundia izan du horretan. "Laisterketa hori garrantzitsua da, Tour-era joateko aukerak badiutugu eta oraindik. Horregatik nire prestakuntza bigarren zatiari begira bideratua dago eta itzuli honetara ez naiz nire onenean iritsi. Gaizki ez nengoen baina indar-indarrean ere ez, eta zegoen mailarekin taldean ondo zeudenei laguntzea tokatu zait. Beti da gustokoa

etxean ondo ibiltzea, baina tira".

Lehenengo itzuli hau behintzat gogorra iruditu zaio Haimarri. "Etaparik gogorre-na hirugarrena izan zen, Gasteizen amaitu zena. Herrera zen porturik gogorre-na, baina aurretik haizeak aldamenetik jotzen zuen eta Poltikoek laisterketa hautsi zuten". Ibilbidea gogorra izateaz gain, munduko txirringarri onenak bertan zeuden eta hori kontuan hartzekoa da beti.

Euskal Herriko itzulia egin ondoren astebete eman zuen etxean lasai-lasai entrenatzen, baina Portugalen izango da ja Mitsubishi saria jokatzeko. Ondoren Errioxako itzulari ekin aurretik indarrak hartzeko hiru egun izango ditu. Gero zer? "Ez dakit oraindik. Asturiaseko itzulia, Midi Libre, Dauphine, Euskal Bizikleta... segidan daude eta hauetatik bi itzuli egingo ditut".

Lehen garaipena lortzea ez da erraza, inork ez baitu ezer erregalatzen. Hala ere Haimarrek ez du itxaropenik galdu. "Ondo jartzen naizenean hor aurrean ibiltzeko moduan ikusten dut nire burua, iaz ere gauza politak egin baintuen. Egunen batean garaipena iritsiko dela pentsatzen dut, ni ere zain nago". Gu ere lehen garaipen horren zain gaude Haimar.

Josu Aranberri

Haur jantziak



Pauma

Kale Nagusia, 2 Tel. 943 36 59 43



TABERNA

"GYRE PRESOAK

HERRIAN BEHAR DITVGV"



Irazu kalea, 12
Tlf: 943 36 02 17

XABIER EDARITEGIA

- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak

Aritzeta, 2 ☎ 943 36 19 78

Usurbil Judo Elkarteak Euskadiko txapeladuna

Kiroi denboraldia aurrera dihoan honetan, Usurbil Judo Elkarteak ordezkariek indartsu jarraitzen dute. Bai lutxa olinpikoan eta bai judon hainbat domina etxera ekarri dituzte azken aste hauetan.

Lutxa olinpikoan Madriden jokatu zen Espainiako txapelketan hiru domina lortu zituzten. 18 urtez azpikoetan **Aitzol Arrozpidek** zilarrezko domina lortu zuen, eta senior mailan **Iker Lizarribar eta Vanesa Guevarak** brontzeko domina eskuratu zuten. Euskadiko txapelketan, berriz, domina ugari

lortu zituzten: urrezkoak **Anartz Aizpurua, Xabier Urkizu, Iker Lizarribar, Aiora Arrozpide eta Vanesa Guevarak**, zilarrezkoak **Aitzol Arrozpidek** eta brontzekoak **Ibai Peña eta Garazi Goikoetxeak**.

Judon, berriz, Usurbil Judo Elkarteak dugu Euskadiko txapeladun berria. Oartzunen jokatu zen klub arteko Euskadiko txapelketan garai-pena lortu zuen **Anartz Aizpurua, Ibai Peña, Andres Herzog, Xabier Urkizu, Mikel Ponga eta Iker Lizarribarrek** osatutako taldeak.



APIRILAK 23 ostirala

- 2. nazionaleko eskubaloi partidua. Igoera fasea Galiziako Carvallon.

APIRILAK 24 larunbata

- 1. errejional mailako futbol partidua (M): Usurbil F.T. - Ordizia. Harane futbol zelaian 17.00etan.
- Kadete mailako futbol partidua: Ikasberri - Usurbil F.T. Garmendi futbol zelaian.
- 2. nazionaleko eskubaloi partidua. Igoera fasea.
- Kadete mailako eskubaloi partidua (M): Urola - Usurbil K.E.

APIRILAK 25 larunbata

- Eskuz pelota banakako txapelketako azken partiduak herriko frontoian.

3/4 Leko-Haritz

1/2 Santxo-Ibarreta

- Nesken errejional mailako futbol partidua (N): Usurbil F.T. - Urnieta. Goizeko 11.00etan Harane futbol zelaian
- 2. nazionaleko eskubaloi partidua. Igoera fasea.

MAIATZAK 1 larunbata

- 1. errejional mailako futbol partidua (M): Usurbil F.T. - Ordizia. Harane futbol zelaian 17.00etan.
- Kadete mailako futbol partidua: Usurbil F.T. - Anaitasuna F.T. Harane futbol zelaian.

MAIATZAK 2 igandea

- Nesken errejional mailako futbol partidua (N): Usurbil F.T. - Hernani. Goizeko 11.00etan Harane futbol zelaian

Emaitzak

Futbola

Apirilak 17-18

Zarautz 3 Usurbil F.T. 0 (1.R.)
Allerru 3 Usurbil F.T. 1 (n.)
Usurbil F.T. 5 Adavi Eguzki 0 (2.ju)
Usurbil F.T. 3 Antoniano 4 (2.ka)

Eskubaloia

Apirilak 17-18

Usurbil K.E. 36 Egia 23 (2.N)
Usurbil K.E. 36 Egia 23 (ju.m)
Usurbil K.E. 25 Egia 17 (ka.m)
Zarautz 14 Usurbil K.E. 20 (ju.n)

Hondartzako futbola

Equitativa 2 Aginaga Sag. 2

Laburdurak

R.: errejionalak ju.: jubenila
N.: nazionala ka.: kadeteak

ESTETIKA ZENTROA

Elexpe
ileapaindegia

Tatuaiak
Betileen tintaketa
eta permanentea

Munolurra 2

Telf.: 943 37 04 62



Kale Nagusia, 9
Tlf. 943 37 33 48
943 37 09 13

USURBIL

Elkarlanean antolatutako egitaraua

Usurbilen behin baino gehiagotan faltan bota izan da kultur taldeen arteko elkarlana. *Noaia!* Kultur Elkarreak kasu honetan irizpide konkretu bat dauka herriari begira: elkarlana lantzea. *Noaia!* aldizkaria aurrera ateratzeko ezinbestekoa da bai taldeekin eta bai herritarrekin egiten den elkarlana, baina herriari eskaintzen zaizkion ekintzen antolaketan ere elkarlana eta koordinatuta lan egitearen beharra ikusi da.

Aurten bi egitasmo nagusi dauzka *Noaia!* Kultur Elkarreak herri mailan kultur ekintzak antolatzeko momentuan. **Inaxio Usarralderen** esanetan kanpotik etorritako proposamenak izan dira biak. *"Noaia!, talde bezala, herriko mugimendua koordinatu dezakeen talde modura ikusi eta guregana jo da, baina guk era berean, guk gure gisa gauzak egin ordez, elkarlane-ra jo dugu bi egitarau hauek prestatzerakoan"*. Hala ere hemendik aurrera ere horrela izango da. *"Orain agertuko ez diren taldeek ere gauza bat argi edukitzea nahi dugu: edozein ekintza elkarlanean egin nahi bada Noaia!ren atea zabalik dituzte"*.

Iaz hasi zen bideari jarraituz, aurten ere herriko kaxkotik auzoetara zabaltzeko asmoarekin, haurrentzat egitarau bat prestatu da. Maiatzaren lehendabiziko astean ekingo zaion egitaraua osatzerakoan ez du *Noaia!* bakarrik parte hartu. *"Auzoetako eskola txiki, Udarregi ikastolari, Euskal Txokoak eramaten duen taldeari eta Guraso Eskolarekin elkarlanean osatu da hau guztia, beti ere udalaren laguntza"*.

Beste egitasmoari dagokionez, Herriko tabernari elkarteak eta udalak antolatzen zituz-

Kultur Errota: Mixel Ducau eta Bi Luma



Arg: Txintxarri

- Errobi taldean aritua Anje Duhalderekin.
- Parisera joan zen gero eta han ezagutu zuen Caroline Philips estatu batuarra.
- Orquesta Mondragonekin aritua da.
- Zaldibobo taldea sortu zuen. Bi diska.
- Iñaki Salvador, Imanol, Joxean Goikoetxea, Amaia Zubiriarekin lan egina.
- Bikote bezala bi diska kaleratu dituzte. Azkena Errotan aurkezten ari direna: Zatoz!

- Arretxabaletarrak: Oier Sarasua eta Andoni Arana "Txurda"
- Bi gazte hauen eskaintza oso berritzailea da
- Duela hiru urte ekin zioten bikote bezala aritzeari eta orain jaso dugu elkar lan horren emaitza
- Filminen bidez bidai bat proposatzen digute zeruko izar multzoak aintzat hartuta.
- Kantuen hitzak Jon Sarasuarenak dira.

ten dantzaldien inguruan gogoeta bat egin ondoren, dantzaldiak gainbehera zetoztela ikusita alegia, bide berrietara zabaltzea komenigarria zela ikusi zen. *Noaia!*, udala

Edozein ekintza elkarlanean egin nahi bada Noaia!ren atea zabalik dituzue

eta tabernarien elkartearen artean beste egitarau bat osatu da udaberrirako. Inaxioren esanetan korrika eta presaka ibili dira. *"Hemendik ekainera bitartean dauden egun seinalatuak hartu eta egun hoietan zerbait antolatzeko izan da gure nahia. Horretaz gain, epe horretan herriko talderen bat zerbait antolatzen ari zela belarrira iritsi zaigunean ere, egitarau honetan parte hartzea gonbidatu ditugu"*.

Egitarau horretan, Korrika 11 pasa zenean dantzaldi bat antolatu zuten, apirilaren 24an egingo den erle egunean Azpeitiko Aranez txaranga ibiliko da kalez kale eta *Noaia!* Kultur Elkarreak ere bere ekitaldia

antolatuko du honen barnean Topaguneko Kultur Errotan sartu dela aprobetxatuz.

Izan ere, Euskal Herriko aldizkari eta euskara elkarten topaguneak Kultur Errota jarri zuen martxan. Euskal Herriko profesional, amateurrak eta herri mailakoak formato txikiko ekitaldi batean biltzea da Kultur Errotaren asmoa. *Noaia!* Topaguneko partaide izanik, egitarau horretan parte hartuko du eta lehendabiziko ekitaldia apirilaren 29an izango da Patri tabernan. Bertan izango dira Mixel Ducau eta Caroline Philips eta Bi Luma taldea.

Udaberriko egitarauarekin jarraituz, maiatzean zenbait ekitaldi aurreikusita daude. Andatza egunean, adibidez, eguna bukatzeko arratsaldean, jendea Andatzatik jeisten denerako kale animazioko zerbait jarriko da eta herriko trikitilariarekin emango zaio amaiera. Maiatzaren 14an Aitzaga Kultur Elkarreak talde eskoziar eta irlandarren emanaldia antolatuko du eta udaberriko egitarauari bukaera emateko, sagardo egunean Tapia eta Leturiarekin erromeria izango da.

Josu Aranberri

Lizarra-Garazi akordio demokratikoa

Lizarra-Garaziko akordioaren edukin demokratikoa zalantzan jartzen diardutenen aurrean, edukin hau gizartera lau haizetara zabaldu beharra dagoela azpimarratu zuten behin eta berriz akordioaren aurkezpenean parte hartu zuten Eako Jagoba Larburuk, E.B.ko EAJko Markel Olanok, LABko Rafa Diezek eta HBko Joseba Permachek pasa den apirilaren 14an egin zuten aurkezpenean.

Hizlari guztiek gauza bat garbi utzi nahi izan zuten Lizarra-Garaziko akordioaren aurkezpenean: Lizarra-Garazi akordioa akordio demokratikoa da, ez da abertzaleen arteko akordioa. Izan ere Euskal Herriak bizi duen gatazka gainditzeko bertako sektore guztiak bilduko dituen eszenario bat lortu behar dela esaten du. Elkarrizketa prozesuan Euskal Herriko sektore guztiek parte hartu behar dute. Alde horretatik demokratikoa da, irekia dagoelako Euskal Herriko sektore guztietara.

Edukinen aldetik ere demokratikoa dela azpimarratu zuten **Jagoba Larburuk**. "Euskal gatazka gainditzeko orduan, elkarrizketa prozesu horretan gatazka hori osatzen duten gai eta elementu guztiak aztertu behar dira, ezin da alde zuzenetik betorik jarri. Euskal gizarateak planteatu nahi dituen gai guztiak mahai gainean jarri behar dira eta elka-

rrizketan gai horien inguruan akordioa lortzen saiatu".

Akordioa sinatu nahi izan ez dutenen aldetik gizaratea zati-tzeko eta nahasteko egin dituzten ahaleginak aipatu ziren behin eta berriz. Lizarra-Garaziko akordioa proiektu abertzale bat dela esaten dutenei zera esan nahi izan zien **Rafa Diezek**. "Argi eta garbi esaten diogu gizarateari herri honi hitza ematen bazaio denok prest gaudela herri honek erabakitzen duena onartzeko. Lizarra Garazin ez dauden alderdi politikoei esan nahi diegu: zuek ere demokratik bazarete onartu behar duzue funtzionamendu demokratikoa eta herri honek beste eszena-toki politiko bat nahi badu, zuek hori onartu behar duzue".

Norberak egin beharreko lana

Duela zazpi hilabete Lizarra-Garaziko akordioarekin ekin zitzaion bidea orain gizarateak

jarraitu behar zuela ados zuden denak. Gizarateak izan behar du prozesu honen zaindari nagusia. Euskal gizarate osoa jarri behar da martxan proiektu horretan. Lizarra-Garazi ez da bakarrik ideia bat, bizitzako konpromezu aukera bat da. **Markel Olanok** esan zuen bezala, "konpromezu horrekin bake prozesuari hezurra eta mamia ematea lortuko dugu, bestela gauzak zuzendaritzatik egiten badira edozein haize boladak bota dezakeensustrairik ez duen zuhaitz bat izango da".

Lizarra-Garazik militante sozialak behar omen ditu **Joseba Permachen** esanetan eta zentzu honetan "bakoitzak badu gizarateratze lan hori egiteko". Mamiagatik, bertan esaten duenagatik edozein euskal demokratik hori sinatu beharko luke eta horretan sinistu".

Josu Aranberri



Zinkildetgia

Lentzeria,
gizonezkoentzat arropa,
haurren jantziak,
etxerako behar dituzunak

Aritzeta 1 behean,
20170 Usurbil ☎ 943 36 17 87

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



ESTRELLA
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak zure zerbitzurako

Zubiarenua, 10
Tlf. 943 37 18 07 - Fax.: 943 37 63 41



Pili Lizaso Murua

 35 urte

 Informatikan lizentziatua EHU

 Bi seme-alaben aita

Ordenadoreak, pertsonak gaixotzeko gai?

Duela hilabete batzuk eskola umeak dituzten guraso batzuk ari ziren berriketan; haurrentzat ordenadorea erostea komenigarria ote zen ala ez; erostekotan zer-nolako ordenadorea behar ote zuten, etab. ari ziren eztabaidatzen non-bait, beste gazua batzuren artean. Tartean ezagun bat bazen eta taldera hurbildu nintzenean honela galdetu zidan:

-Aizu! zu ordenadore kontutan ibiltzen zara eta jakingo duzu zer-bait. Zer da ordenadoreen birusen kontu hori? Pertsonak gaixotu al litezke kutsatutako ordenadoreak erabiliz gero?

Galderak ezustean harrapatu ninduen eta uste dut barre irudiak aldegin zidala bapatean. Hala ere, gerora zer pentsatua eman zidan. Ordenadoreak abiada osoan joan dira hedatzen; hasiera batean unibertitateetan eta enpresa handitan soilik erabiltzen baziren ere, 1980az gero, enpresa txiki, bulego, denda, eskola eta etxeetara egin dute salto. Jende mordo da dagoeneko ordenadoreekin harremanen bat duena era batera edo bestera eta hauek halabeharrez ikasi behar izan dituzte tresna hauen trikimailuak. Estatistikek diotenez ditxosozko 2.000. urterako 3 familiatik 1ek izango du ordenadorea etxean. Hau horrela bada, gurasook informatuta egoten saiatu beharko dugu.

Birus informatikoak ordenadore programak dira. Ordenadoreen funtzionamendu normala eragozten duten programak, hain zuzen ere. Birus asko daude eta mota eta eragin desberdinekoak dira. Batzuk, pantailan agertarazten duten ikurren baten bidez lanean traba egitearekin konformatzen dira. Amorragarriak diren arren ez dute informazioa hondatzen. Beste batzuk, informazioa hondatu edota diskotik ezabatu egin dezakete. Kaltegarrienak berriz, disko osoa ezabatzeko eta ordenado-

rea bera erabat hondatzeko ere gai dira. Beraz, artikulu hau idazterara bultzatu nauen galderaren harira, gaixotasun larririk ez baina bihotzondokoren bat edo buruko minen bat eragingo zioten bati baino gehiagori direlako birus hauek.

Batzuen ustez gehiegizkoa da gai honi ematen zaion garrantzia. Hauen esanetan erabiltzen ditugun beste tresna batzuk ere hondatzen dira eta ez da horrelako istilurik sortzen. Agian detaile batzuk ahazten dituzte ordea, batetik, ordenadoreek, beste tresna batzuk ez bezala, informazioa manipulatzeko dute eta informazio galera askotan berreskura ezina izaten da. Bestetik ordenadoreek birusak transmititzeko duten erraztasuna dago, askotan nahikoa izaten da infektatutako ordenadore batean erabilitako disketea beste ordenadore batean erabiltzea, azken hau ere infektatzeko. Internet bidez eta posta elektronikoen bidez ere zistu bizian hedatzen dira birusak, ikusi besterik ez azken egun hauetan prentsan hainbeste aipatu den Melissa izeneko birusa. Posta elektronikoz jasotako mezu baten bidez iristen omen da; mezua irikiz gero ordenadorea infektatu eta automatikoki ordenadore horretan gordetako beste 50 helbideetara bidaltzen omen du mezua.

Ezin solasaldi hau bukatu antibirusak aipatu gabe. Antibirusak ere programa informatikoak dira, birusak bezalaxe, baina hauen zereginna ordenadorea birusen kalteetat babestea, eta jada kutsatuta dauden programa eta dokumentuak bere onera ekartzen saiatzea da. Hala ere, nahiz eta ustez babestuta egon, har litezkeen neurri guztiak hartzea komeni da. Datuen segurtasun kopiak izango dira askotan birusak sortutako estualditik ateratzeko soluzio bakarra.



Lehiaketa




Argazkian daudenetatik hamarren izenak asmatuko al zenituzke?

Gutxienez 10 izen ematen dizkigutenen artean **Bordatxo tabernan** bi pertsonentzako afaria zozketatuko dugu

Eskerrak aurreko alean hiru izen eskatu genituen, ez baita erraza argazkian daudenak zeintzuk diren asmatzea. **Nikolas Izeta, Valeriano Sagardia, Domingo Arrillaga, Isidro Urkia, Sebastian Sagardia eta Francisco Salsamendi** hor zeuden. Baina nor zen zazpigarrena? Batzuek **Alejandro Echave** dela esaten dute, besteek berriz, **Joxe Urruzmendi**. Dena den, guk hiru izen eskatzen genituen eta zozketa egin ondoren **Matilde Urkiak** izango du Patri tabernan afaltzeko aukera. Zorionak!

OSTATYA BARAZAR JATETXEA



-Bost gela komunarekin

-Pintxoak, otartekoak eta kaxuelak

-Eguneroko menuak

Tel.: 943 36 33 58

Arbitza bidea, Zubieta

APIRILAK 23 ostirala

- J.M. Satrustegi etnologoak "Euskal mitologia erleen inguruan" hitzaldia eskainiko du Udarregi ikastolan arratsaldeko 18.00etan.

APIRILAK 24 larunbata

- Santixabel jaiak hurbiltzen ari direla eta **jaiak antolatzeko bilera**. Udal aretoan 11.30etan.
- Goizeko 10.30etatik aurrera, herriko frontoian: **erle azoka, erlazaintzari buruzko erakusketa, Gipuzkoako ezti sariketa nagusia eta ezti ateratze erakustaldia**. 14.00etan **erlearen inguruko bertso bazkaria** Saizar sagardotegian. **Jon Sarasua eta J.M. Irazu bertsolariak eta J.M. Satrustegi, Bernardo Atxaga eta Mikel Laboa** ere bertan izango dira.
- Arratsaldeko 18.00etatik aurrera **Aranez txaranga** ibiliko da herriko kaleetan zehar.

APIRILAK 26 astelehena

- **Euskal Herria askatu!**-ren kontzentrazioa arratsaldeko 20.00etan hasita errotondan.

APIRILAK 29 osteguna

- Udalak, Tabernarien Elkarteak eta *Noaua!* antolatutako udaberriko egitarauaren barnean eta *Noaua!* kultur errotaren barnean dagoela aprobetxatu-

tuz **Mixel Ducau eta Caroline Philips eta Luma Bi Patri** tabernan. Gaueko 22.00etan.

APIRILAK 30 ostirala

- **Senideaken manifestazioa**. Arratsaldeko 20.00etan irtingo da frontoitik.

MAIATZAK 2 igandea

- **Andatza eguna**. Irteera udal-letxe aurretik izango da goizeko 9.00etan. 12.00etan izango da meza eta goizean zehar txorixoa, haragi egosia eta salda. Bazkaria (babarrun jana) arratsaldeko 14.00etan. Txartelak betiko lekuetan dituzue salgai.
- Arratsaldeko 19.00etatik aurrera **kale animazioko talde bat** herriko frontoian famili eta lagun giroa mantentzeko. Eguna amaitzeko **herriko trikitilarien emanaldia** izango da.

MAIATZAK 3 astelehena

- **Euskal Herria askatu!**-ren kontzentrazioa arratsaldeko 20.00etan hasita errotondan.

OHARRAK


- ✎ **2cv autoa salgai** 30.000 pezetatan. Interesatuok deiezazue 943 366014 telefonora arratsaldeko 20.00etatik 22.00ak bitartean.
- ✎ **Pisua alokatzen dut Etxealdian**. Interesatuok deitu 943 362088 telefonora (Maria Jesus).

UDABERRIKO EGITARUA

- Apirilaren 24an Azpeitiako Aranez txaranga ibiliko da herriko kaleetan. Arratsaldeko 18.00etatik aurrera kalez kale entzun ahal izango dituzu beren doinuak.
- Apirilaren 29an Mixel Ducau eta Caroline Philips eta Bi Luma taldearen musika emanaldia Patri tabernan gaueko 22.00etatik aurrera. *Noaua!* Kultur Errotaren barruan dagoenez lehen emanaldia.
- Maiatzaren 2an kale animazioko talde bat izango da herriko frontoian. Arratsaldeko 19.00etatik aurrera, Andatzatik lasai-lasai jeitsi ondoren famili, koadrila giroa mantentzeko kale animazioa. Ondoren herriko trikitilariak arituko dira.

DANBORRADA

Santixabel bezperan izango den helduen danborradan edo Santixabel eguneko haurren danborradan apuntatu nahi duzuenok maiatzaren 8an Agerialden eman beharko duzue izena



Ekaitz

Bideo eta ARGAZKIak

Usurbil

Tlf 943 36 14 87

OIARTZUN



Galdaragintza eta Errementaldegia

TALLERES
SETABU, S.L.
TAILERRAK

Ulgarte Industrialdea, 7 Pabiloia
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Telf.: 943 36 08 48

Egoitza berrian gaude, ja!

Noaua! -ren patua idatzia dago: *kartak* nagusi izan diren tokietan bizitza egokitu zaigu. Izan ere, gure aurreneko egoitza postetxea izan zen, eguna joan, eguna etorri karten sartu-atera etengabearen lekuko zuzena urtetan izandakoa. Eta bigarrena... lehen gure zaharrek hainbat karta saio egindakoa, alajainena! Nahiz eta berriro dugun, "enbido" eta "hordago" soinuaren ohiartzuna darie bertako paretei, egunotako izerdi tanten artean.

Ba bai, aldatu gara egoitza berrira! Lehengoa hustu eta mandoa "karga mas karga" eginda jarri eta berrira pasa trasteak. Oraingo, pasa diren eran daude traste gehienak, egia esan. Izan ere, noiz edo noiz, edozein egoitza, etxebizitza aldaketa egin duenak badaki, jakin nola izaten diren gauza hauek.

Bide guzti honetan jakina, laguntzaile aritu diren guztiak ezin ahaztu. Ez litzateke batere juxtua izango eta.

Honelakoetan gertatzen den bezala zerrenda luzea da. Aurren aurrena, Noaua!-n maiz ikusten ditugun horiek eskertu nahi ditugu. Barkatuko ahal duzue zuen izen guztiak hemen ez aipatzea! Gero gure eskerona adierazi nahi diegu ondorengo hauei:
Usurbilgo udala, udaletxe
brigada, Felix Aizpurua,



Noriega eskaiolak, Izagirre elektrizitatea, S.G. Manu Lertundi iturgintza, Ibargoién arotza, Iktza aroztegia, Jokin Izagirre, Nagore Leoz, Aitziber Unanue, Fernando Garcia, Oskar Angulo, Kerman Errekondo, Miren Maioz, Tomas Iturralde, Maite Salaberri, Unai Loidi, Patxi Azpiroz, Haritz Zubiaur, Saioa Fernandez, Kami Vidal, Inaxio Arruti, Rafa Ibargoién eta Lazkaoko Zelestino Arakama. Guzti hauek gabe ez ginatete gaude lekuan egongo. Mila esker, denoi!

Egoitza berrian, Noaua!-kook ezik, hemen ibiliko gara elkarrekin Sagardoaren Eguneko Lagunak elkartekoak, Elkarri eta Hitza Jasoz batzordekoak.

Orain berrian argi gehiago dugu, goxoago, beroago gaude. Baina, luzaroan hala izatea nahi badugu, ondo zaindu

behar dugu. Hori ari gara antolatzen, hain juxtu: garbitasuna. Honetan lagundu nahi duenak gure telefonora deitza besterik ez dauka. Urtean, pare bat aldiz egoituko litzaziguke, gehienara. Zenbat gauden prest astean behin garbitasun paxara egiteko, horra kakoa!

HELBIDE BERRIA!

Noaua!
kultur Elkarte

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
 20170 Usurbil
 Tel/Fax: 943 360321
 noaua@topagunea.jalgi.com

BAZKIDE TXARTELA

5.000 PEZETA URTE OSORAKO



Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Tfnoa: _____
 Kontu Korrontea (20 digito): _____

445

bazkide ditu Noauak.
Zu ere egin zaitez
bazkide

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAREN ONDOKOA (DBHO)

(16-20 URTE "A" eta "D" EREDUAK)

A) DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAREKIN (DBH) KOORDINATUTAKO HEZKUNTZA PROIEKTUAK.

- Esperientzia handiko irakasle euskaldun adituak.
- Arreta berezia ikasleak unibertsitatara edo lan-mundura bideratzeko.
- Inguruko enpresekin harreman handiak.
- Batxilerreko espezialitate bakoitzean aukeragai ugari.



B) HORNIKETA BERRIA ETA GAURKOTUA.

- Teknologiako gelak.
- Natur Zientzietako laborategiak.
- Fisika eta Kimikako laborategiak.
- Informatika gelak.
- Argazki laborategia.
- Gimnasioa.
- Eta abar.

AURRE-MATRIKULA EGITEKO EGUNAK:

Ekainaren 1etik 9arte.

MATRIKULA EGITEKO EGUNAK:

Uztailaren 1etik 9arte.



D) HEZIKETA ZIKLOAK

- Erdi mailakoak (16-18 urte)
Gestio Administratiboa
- Goi Mailakoa (18-20 urte)

- 1.Administrazioa eta finantzak.
- 2.Administrazioa eta informatika sistemak.
- 3.Merkataritza eta marketing-a (2000-2001).

C)BATXILERGOA (16-18 URTE)

1. Humanitateak eta gizarte zientziak batxilerra.
2. Natura eta osasun zientziak batxilerra.
3. Teknologia batxilerra.

BILERA
Apirilaren 28an, arratsaldeko betan,
bilera izango da institutuan
Udarregiko ikasle eta gurasoentzat.
Ondoren, horniketa berria eta
gaurkotua ikusi ahal izango dute.

Buenos Aires aldapa, 1 Lasasrte-Oria

Tel.: 943 37 28 52-943 37 22 77

Faxa: 943 37 16 78